

2010-2011 IKASTURTEA



ARDURADUNA : JAINTZA IKASTOLA

PARTAIDEAK: Jakintza Ikastolako HHko haurrak eta Zuhaizti zentroa.

Norentzat antolatua: Pertsona nagusientzat eta bertaratzen diren guztientzat.

Gizonezkoak % 54,35 (Haurrak) Emakumezkoak % 45,65 (Jubilatuak)
% 76,2 (Jubilatuak) Jubilatuak % 23,81 (Jubilatuak)

Hartzailearen adina: Haurrak Nerabeak Gazteak Helduak Nagusiak

DATA: 2011ko maiatzaren 24an, 15:30ean

HELBURUAK:

- Prestatutako ekimenak plazaratu.
- Lotsaren beldurra gainditu.
- Besteen aurrean aritzeko ausardia lortu.
- Aiton-amonak baloratu.
- Ikasleen lanak baloratu.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Ikastolako ikasleek urtero prestatzen duten udaberriko jaia erakutsi diete jubilatuei.

- 1.-Ikastetxeek, beraien programa barruan prestatzen dituzten lanak kanpoan erakusteko egokitzen dituzte.
- 2.-Jubilatuei gonbidapena egiten zaie.
- 3.-Jubilatuen egoitzan lekua prestatzen da.

BALIABIDEAK:

- Agertokia
- Musikako CDak
- Megafonia

BALORAZIOA:**JAKINTZA:**

Orokorrean balorazio ona. Nahiz eta beraiek ez adierazi gehiegi hango arduradunak esan zigun txorutzen egon zirela.

Ordua ez dakigu oso egokia den, agian goizean jende gehiago joango litzateke. Agertokia oso txikia zenez, beste modu batean prestatu genuen aretoa. Hurrek ispilu aurrean dantzatu zuten eta aiton-amonak beraiei begira ipini zituzten. Horrela, nahiz eta haur kopuru handiak izan, arazorik gabe dantzatu zuten.

ZUHAIZTI:

Gustuko ekintza izan da ikusi dutenentzako, pertsona nagusientzat oso motibagarriak dira haur txikien emanaldiak.

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Aurkezpena hobeto antolatu dezakegu.

2011-2012 IKASTURTEA



ARDURADUNA : JAINTZA IKASTOLA

PARTAIDEAK: Jakintza Ikastola, Zuhaizti zentroa.

DATA: Maiatzaren 28

HELBURUAK:

- Ikasleek prestatutako ekimenak plazaratzea.
- Lotsaren beldurra gainditzea.
- Besteen aurrean aritzen ausartzea.
- Aitonak eta amonak baloratzea.
- Ikasleen lanak baloratzea.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Ikastolako ikasleek urtero prestatzen duten udaberriko jaia jubilatuei eskaini diete.

- 1.- Ikastetxearen aldetik, beren programan prestatzen dituzten lanak kanpoan emateko egokitzen dituzte.
- 2.- Jubilatuei gonbidapena luzatzen zaie.
- 3.- Jubilatuen egoitzan lekua (aretoa) prestatzen da.

BALIABIDEAK:

Jubilatuenerako areto nagusia, eta megafonia tresnak (musika, mikrofonoak...).

BALORAZIOA:

Oso ona. Aretoa beteta zegoen eta gure ustez gustura geratu ziren.

Aurten 5 urteko bikote batek egin du aurkezpena eta iaz baino politago atera da.

Aitona-amona batzuk ez zuten aretora joaterik izan igogailua izorratu zelako eta 3 urteko haurrak bertara joan eta abesti eta dantza batzuk eskaini zizkieten.

Beraz, oso balorazio positiboa.

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK:

Aurretik hobeto lotu behar dituzten baliabide guztiak aurretik prestatu behar baitira.

2012-2013 IKASTURTEA



ARDURADUNA : JAINTZA IKASTOLA

PARTAIDEAK: 90 publikoan

Haur hezkuntza 3., 4. eta 5. kurtsoak - Jakintza

Nori zuzentzen zaio: Pertsona nagusiei baina irekia da. Eguneko zentroko aiton-amonak eta gurasoak etorri dira ekintzara

Gizonezkoak % 10 Emakumezkoak % 90 (publikoa)

Hartzailearen adina: Helduak, Nagusiak

DATA: 2013ko ekainaren 3an

BALIABIDEAK:

Jubilatuenerako areto nagusia, eta megafonia tresnak.

BALORAZIOA:

Partaidetza aldetik ona. Aretoa beteta.

Eguneko zentroko guztiak oso oso pozik.

Ekintza polita da, koloretsua, alaia.

Gurasoek aukera dute Jubilatuen zentrora hurbiltzeko eta barrutik ezagutzeko.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Ongi dago.

2013-2014 IKASTURTEA



ARDURADUNA : JAINTZA IKASTOLA

PARTAIDEAK: 90 ikuslegoan.

Jakintza Haur hezkuntzako 3., 4. eta 5. kurtsoak.

Nori zuzentzen zaio: Pertsona nagusiei baina irekia da. Eguneko zentroko aiton-amonak eta gurasoak etorri dira ekintzara.

Gizonezkoak % 10 Emakumezkoak % 90 (ikuslegoan)

Hartzailearen adina: Helduak eta nagusiak.

DATA: 2014ko ekainaren 2an

HELBURUAK:

- Eguneko zentrokoei, eskolan prestatu dituzten emanaldiak erakustea.
- Belaunaldien arteko harremana eta partaidetza sustatzea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Ikastaroan zehar ikastetxeko ikasleek udaberrirako prestatzen duten festaren laburpena eskaintzen diete jubilatuei.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

BALIABIDEAK:

Jubilatuenerako areto nagusia, eta megafonia tresnak.

BALORAZIOA:

Partaidetza aldetik ona izan da, aretoa beteta egon baita.

Eguneko zentroko guztiak oso pozik geratu dira, asko disfrutatzen baitute haurren emanaldiekin, musika eta dantza dagoen ekintzekin.

Ekintza polita, koloretsua eta alaia izan da.

Positiboki ere baloratzen da, gurasoek aukera izatea Jubilatuen zentrorra hurbildu eta barrutik ezagutzeko.

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK:

Bukaeran, 5 urteko ikasleak han geratzea hartzaileekin elkarrizketatxo bat egiteko.

2014-2015 IKASTURTEA



ARDURADUNA : JAINTZA IKASTOLA

PARTAIDEAK:

Garagunetik: 4 EMAKUME ETA 3 GIZONEZKO

Hartzailearen adina: Haurrak(0-12) Nerabeak(13-18) Gazteak(19-40)

Helduak(40-60) Nagusiak(+60)

DATA: 2015-06-01

HELBURUAK:

Hiri hezitzailearen proiektuaren barneko ekimen bat da: berritu, umeak eta helduak harremanetan jartzeko.

Landutako balioak:

- Umeek ikastolatik kanpo beste errealitate bat ezagutzea: espazioa, jende heldua....
- Aitona-amonei poza eta alaitasuna ematea.
- Umeek egin duten egin duten polit bat erakustea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

3, 4 eta 5 urteko haurrek prestatutako dantza desberdinen aurkezpentxoak. Bertara, guztiak mozorro desberdinekin joaten gara.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Guk jaialdia ikastolarako egiten dugu eta hori bera da han erakusten duguna. Kristina Altunarekin adosten da eguna eta ordua.

BALIABIDEAK:

- Bertako musika aparatua
- Aretoa
- Jakintzak CDa eramaten du

· Giza baliabideak: garaguneko profesional bat

BALORAZIOA:

JAKINTZA IKASTOLA:

Hemen aipatutako helburuak neurri batean betetzen dira; izan ere, guraso eta familiarteko asko(aurretik ikastolan ikusitakoek) azaltzen dira bertan.

GARAGUNEA:

Garaguneko erabiltzaile batzuk, beraien planak osatzean, azaldu dute musika eta dantza emanaldietan parte hartzeko desioa. Eta horixe da lortu dutena jaialdi honetan: kultur ekintzez disfrutatzekeo duten eskubidea bermatzea.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

JAKINTZA:

Guk egiten dugunaren aldetik, gustura gaude egiten dugunarekin.

GARAGUNEA:

Kurtso hasieran, honelako jardueren plangintza egitea

OHARRAK

Euria egingo balu bertan behera uztea eskertuko genuke sortzen dituen eragozpenengatik.

Garagunekoek Hiri Hezitzaileen 3. printzipioarekin lotu dute ekintza.